

DURANGALDEKO EREMU FUNTZIONALEKO PAISAIAREN ZEHAZTAPENAK

2024ko maiatza



Asesoría e Investigación Medioambiental

Konbenio, 11 trasera
48340 Amorebieta-Etxano
Bizkaia
Tel.: 94 630 06 19
Fax: 94 630 01 46
ekos@ekos-eeco.com
www.ekos-eeco.com

EECO
European Ecological Consulting S.L.
C.I.F. B48827075



**SUSTAPENA, EKIMENA ETA
ZUZENDARITZA**

**PROMOCIÓN, INICIATIVA Y
DIRECCIÓN**

AZPIEGITURETARAKO ETA LURRALDE
GARAPENERAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE INFRAESTRUCTURAS
Y DESARROLLO TERRITORIAL

Carlos Alzaga Sagastasola. Diputado Foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial
Aimar Rico Ruiz. Director General de Desarrollo Territorial
Jose María Bilbao Intxaurreaga. Subdirector General de Cohesión Territorial

TALDE TEKNIKOA

EQUIPO TÉCNICO

LURRALDE ANTOLAMENDURAKO ATALA

SECCIÓN DE ORDENACIÓN TERRITORIAL

Idoia Garay Telletxea. Arquitecta. Jefa de Sección
Olga Aldaz Carretero. Arquitecta
Miguel Ángel Blanco Rodríguez. Arquitecto
Ainara Uriarte Baza. Arquitecta
Francisco Javier Hernández Rico. Diseño gráfico

ASESORIA E INVESTIGACION MEDIOAMBIENTAL



Laguntza teknikoa

Asistencia técnica

Adrián Diez Angulo. Geógrafo
Jan-Lukas Menzel Barraqueta. Dr. Ciencias Naturales
Ainize Lopez de Abechuco Kortazar. Graduada Ciencias Ambientales
Miriam Esteban Aldazabal. Geógrafa
Colaboradores
Paula Amuchastegui Moreno. Urbanista (Erdu S.L.)
Joaquin Garcia Purroy. Historiador-Paisajista (Humus Sapiens S.L.)



**PARTE-HARTZE PROZESUKO
LANTALDEA**

**EQUIPO DEL PROCESO DE
PARTICIPACIÓN**

Ana María Macho Moran. Dirección y análisis
Thalía Olatz Sobron Rojo. Análisis
Ane Caro Aramendia. Dinamización y análisis



DURANGALDEKO PAISAJEI BEGIRE



DURANGALDEKO EREMU FUNZIONALEKO PAISAJIAREN KATALOGOA ETA ZEHATZAPENAK
CATALOGO Y DETERMINACIONES DEL PAISAJE DEL AREA FUNCIONAL DE DURANGALDEA

2024ko maiatza

AURKIBIDEA

1. MEMORIA.....	5
2. ANTOLAMENDU ARAUAK	8
1. Artikulua- Paisaiaren Zehaztapen xedea	8
4. Artikulua- Paisaia-Kalitatearen Helburuak (PKH)	11
5. Artikulua- Bizitegi-garapen berrietan paisaiaren faktorea sartzeari buruzko zehaztapenak (PKH1).....	13
8. Artikulua- Azpiegitura linealak eta puntualak paisaian integratzeari buruzko zehaztapenak (PKH4).....	15
9. Artikulua- Hondakinak kudeatzeko azpiegiturak eta erauzketa-jarduerak paisaian integratzeari eta/edo lehengoratzeari buruzko zehaztapenak (PKH5).	16
10. Artikulua- Landa-asentamenduak zaintzeari eta inguruan sakabanatuta dauden eraikuntzak paisaian integratzeari buruzko zehaztapenak (PKH6).	16
11. Artikulua- Landazabaleko nekazaritzako eta abeltzaintzako paisaia tradizionala zaintzeari buruzko zehaztapenak (PKH7).	17
12. Artikulua- Paisaia eta biologia aniztasun handiagoa sustatzeko baso-kudeaketari buruzko zehaztapenak (PKH8).....	18
13. Artikulua- Herriarren gozamenarekin bateragarriak diren ibai- eta zingira-inguruneak kontserbatzeari eta/edo lehengoratzeari buruzko zehaztapenak (PKH9).	19
14. Artikulua- Paisaia naturalak eta funts eszenikoak kontserbatzeari buruzko zehaztapenak (PKH10).	20
15. Artikulua- Ondare elementuak kontserbatzeari, zaharberritzeari eta balioa emateari buruzko zehaztapenak (PKH11).....	22
16. Artikulua- Paisaia ibilbideen errepide eszenikoen, begiratokien eta/edo ikuspegi-potentzial handiko jolas-eremuen sarea kontserbatzeari, hobetzeari eta sustatzeari buruzko zehaztapenak (PKH12).	23
17. Artikulua- Administrazioen arteko lankidetzari buruzko zehaztapenak, bai eta PKHren garapenerako erantzunkidetasunean eskudunak diren eragile pribatuen arteko lankidetzari buruzkoak ere (PKH13).	24
18. Artikulua- Paisaia zaintzeko eta hobetzeko dibulgazioari, prestakuntzari, sentsibilizazioari eta herriarren parte-hartzeari buruzko zehaztapenak (PKH14).....	24
19. Artikulua- Paisaiaren zehaztapenak aplikatzea eta garatzea.	25

DOKUMENTAZIO GRAFIKOA:

I. MAPA: PAISAIA UNITATEEN MAPA

II. MAPA: PAISAIA-INTERES BEREZIKO EREMUEEN MAPA

III. MAPA: PAISAIAREN KALITATE-HELBURUEN MAPA



1. MEMORIA

Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuak paisaia eta haren garapena lurralde-antolamenduaren dimentsio espezifiko gisa integratzeko tresnak ezartzen ditu, Europako Kontseiluak 2000. urtean onartutako Paisaiaren Europako Hitzarmenean aldarrikatutakoarekin bat etorritz.

Dekretu horrek, besteak beste, Paisaiaren Katalogoak arautzen ditu. Katalogoak eremu funtzional osoa hartzen duten deskripzio- eta prospekzio-dokumentuak dira, eta hortik eratortzen dira Paisaiaren Kalitatearen Helburuak, Paisaiaren Unitateak eta Paisaiaren Interes Berezikoko Eremuak, bai eta Paisaiaren Zehaztapenak ere. Konkrétuki, paisaiaren zehaztapenak gomendiozko arau-xedapenak dira, eta paisaiaren kalitatearen helburuak lortzea eta dagokion Lurralde Plan Partzialean (LPP) sartzeko asmoa dute helburu. Dekretuak berak zehazten du foru-aldundien eskumena, aintzat hartutako eremua beren lurralde historikoan erabat sartuta geratzen den kasuetarako.

Durangaldeko Eremu Funtzionala Bizkaiko Lurralde Historikoaren hego-ekialdeko muturrean dago, eta honako eremu funtzional hauekin egiten du muga: Busturialdea-Artibai (iparraldean), Debabarrena (ipar-ekialdean), Debagoiena (ekialdean eta hegoaldean), Arratia (mendebaldean) eta Bilbo Metropolitarra (ipar-mendebaldean). 255 km²-ko azalera du eta Abadiño, Amorebieta-Etxano, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibar udalerriak hartzen ditu. 77.000 biztanletik gorako dentsitate demografikoa 304,9 bizt./km² da. Durangaldeko Eremu Funtzionala bat dator Ibaizabal ibaiaren eta haren ibaiadarren goiko eta erdiko arroarekin, eta muga fisikoak ditu iparraldean Bizkargi eta Oiz mendilerroekin, eta mendebaldean eta hegoaldean Aramotz, Anboto eta Udala mendilerroekin. Ibarrean kokatzeak korridore izaera ematen dio Bilbori eta Donostiari, eta horrek areagotu egiten ditu hiri- eta egoitza-erabilerak, jarduera ekonomikoenak eta komunikazio-ardatz linealenak. Lurzoruaren erabileren okupazioak lotura estua du topografiarekin, eta, beraz, haranaren hondoan kokatzen dira herrigune nagusiak, industria eta azpiegiturak. Mendiatarantz, baso-landaketak Atlantikoko landazabalarekin partekatutako eremu bat nagusitzen da, non belardiak, zuhaitziak eta baserri-auzuneak nahasten diren. Hegoaldean eta mendebaldean, Urkiolako Parke Naturala bere profil malkartsu eta arrokatuagatik ezaguna den paisaia baten agertoki gisa aurkezten da.



Paisaiaren Katalogoak lau paisaia-eremu mugatzen ditu eremu funtzionalerako:

Banalerroko mendiak. Eremu funtzionalaren mendebaldeko eta hegoaldeko muga menditsua dira, eta orografia-, geomorfologia-, ekologia- eta paisaia-berezitasun nabarmenak dituen sistema orografiko bat dago bertan. Hesi menditsu ikaragarria da, Kantauriko eta Mediterraneoko uren banalerrokoa, kareharrizko substratuaren gainean garatzen dena. Pareta ia bertikalak eratzen ditu, Eremu Funtzionaleko paisaiaren hondo eszenikoaren papera betetzen dutenak. Hemen kokatzen da Urkiolako Parke Naturala, ekologiaren eta biodibertsitatearen bermatzaile gisa, eta horrek balio handia ematen dio gune honi.

Bizkaiko barnealdeko mendi bereziak. Eremua Oiz mendiaren inguruneari dagokio. Bizkaiko Sinklinorioaren gainean garatzen den iparraldeko mendilerroa da. Bere topografia bikainak, morfologia lau eta luzeak eta gailurrean zuhaitz gutxi egoteak paisaia berezia osatzen dute. Fisiografikoki, itxura trinkoa du, Ibaizabaleko haranera poliki-poliki jaisten diren amildegietan zehar egindako eskailera-mailekin. Sentsazio hori areagotu egiten da baserri gutxi daudelako. Gailurreko landaredia, batez ere, txilar, argoma, iratze eta lastozabalez osatutako zakardiek osatzen dute, eta garaierako larreen erabilera komunala gogorarazten dute. Haranerantz, pinazeo-sailak (eta gero eta eukaliptal gehiago) espazioaz jabetzen dira, eta hostozabalei soilik uzten dizkiete baso-unada batzuk.

Ibar atlantikoaren hondoa Ibaizabal eta Zaldu ibaien alubioi-hondoari dagokio. Topografiaren arabera, gunerik deprimituena da, eta morfologia laua edo malda leunak ditu, lurzoru onekin batera, erabilera-lehia handia sustatzen dute. Zalantzarik gabe, ardatz horren gainean egituratzen da Eremu Funtzionala, eta bertan kokatzen dira jarduera ekonomiko nagusiak eta eraikuntza-dentsitate handienak. Dinamika horri mesede egin dio kokapen estrategikoak, Bilboko metropoli-eremuaren eta Gipuzkoako industria-haranen arteko korridore gisa. Haranaren hondoko paisaiak morfologia urbanoa hartzen du hainbat puntutan, eraikinak garaieran eta bizitegi-dentsitate handiarekin. Hemen kokatzen dira Eremu Funtzionaleko herrigune nagusiak Durango, Amorebieta-Etxano, Elorrio edo Abadiño, esaterako. Herrigune horietako askok, azkenean, hiri-eremu jarraituak eratzen dituzte, hiri- eta industria-eremuetako auzuneak elkartzen direlako. Era berean, industria-jarduerei eskainitako espazioa nabarmena da, komunikazio-ardatzen bidez konektatutako poligonoak osatuz.



Nekazaritzako eta basogintzako paisaia mosaiko atlantikoa eremu funtzionalean garatzen da, banalerroaren inguruko mendien eta Oizen eta Ibaizabaleko haranaren hondoaren artean. Bere landazabalaren morfologia irtengune alomatuek eta eskailera-buruek osatzen dute, batzuetan haran zabalagoak eta beste batzuetan itxiagoak eratzen dituzten ibai laburretan zehar. Espazioan ematen diren erabilerak, funtsean, landatarrak dira, eredu xume bati jarraituz: malda gogorra denean, baso-landaketak agertzen dira; ibar-hondoetako eta zintzilikatutako sorbalda-zuloetako eremu lauenetan, berriz, belardietarako eta laborantzarako erabiltzen da, eta denborak aurrera egin ahala azalera murritzten dela ikusten da. Mosaiko hori, paisaiaren ikuspegitik, baso misto atlantikoz eta haltzadi-korridorez osatutako baso autoktonoko unada txikiek aberasten dute ibai-ibilguetatik gertu dauden galerietan. Kokalekuak landazabaleko paisaiaren azken osagarria dira. Herrigune txikiak osatzen dituzte, eta auzune eta baserri sakabanatuak sortzen dituzte, ugariagoak Eremu Funtzionalaren ekialderantz, eta, askotan, landa-izaera eta -fisionomia tradizionala mantentzen dute.

Durungaldeko Eremu Funtzionalako Paisaiaren Katalogoa egin ondoren, Bizkaiko Foru Aldundian lurralde antolamenduaren arloko eskumena duen sailaren ekimenez, eta eremu funtzional horretan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeke zehaztapen egokiak atera ondoren, uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan jasotzen den bezala, Durungaldeko Eremu Funtzionalaren LPPari Antolamenduko Arau gisa sartu behar zaizkio, gomendio gisa, aipatutako zehaztapenak eta paisaia-unitateen mapak, paisaia-interes bereziko eremuak eta paisaia-kalitatearen helburuak, zeinen eduki zabala Paisaiaren Katalogoan jasota baitago.



2. ANTOLAMENDU ARAUAK

1. Artikulua- Paisaiaren Zehaztapen xedea

1. Paisaiaren Zehaztapen hauek Durangaldeko (Bizkaia) Eremu Funtzionaleko Paisaiaren Kalitatearen Helburuak (PKH) garatzea helburu duten arau-xedapen gomendagarriak dira.

2. Paisaiaren zehaztapenak Durangaldeko (Bizkaia) Eremu Funtzionaleko Paisaiaren Katalogoan oinarritzen dira.

2. Artikulua – Paisaiaren eremuak eta unitateak

1. Durangaldeko Eremu Funtzionalean, paisaiaren lau eremu daude, hamasei paisaia-unitate biltzen dituztenak. Paisaiaren aldetik homogeneoak diren eremuak dira, eta horien gainean ezarri behar da paisaia babesteko, kudeatzeko eta antolatzeke araubidea.

2. Paisaiaren lau eremuak honako hauek dira:

- a) Banalerroko mendial
- b) Bizkaiko barnealdeko mendi bereziak
- c) Haran atlantikoaren hondoa
- d) Atlantikoko nekazaritzako eta basogintzako mosaikoa

3. Eremu funtzionaleko hamasei paisaia-unitateak honako hauek dira:

- a) Banalerroko mendial
 - UP1. Urkiola
 - UP2. Udalaitz
- b) Bizkaiko barnealdeko mendi bereziak
 - UP3. Oiz
- c) Haran atlantikoaren hondoa
 - UP4. Corredor del Ibaizabal-Zaldu
 - UP5. Ibaizabal entre Elorrio y Abadiño
- d) Atlantikoko nekazaritzako eta basogintzako mosaikoa
 - UP6. Aldana-Boroa



- UP7. Etxano
- UP8. Oromiño
- UP9. Garai
- UP10. Lemoatxa
- UP11. Bernagoitia-Orozket
- UP12. Mañaria
- UP13. Mendiola
- UP14. Arrazola
- UP15. Elorrioko harana
- UP16. Aixola

4. Paisaia-eremuen eta unitateen mugaketa grafikoa paisaiaren zehaztapenen I. Eranskinean jasotzen da, eta paisaia-unitate bakoitzaren deskribapen zehatza Durangaldeko eremu funtzionaleko paisaiaren katalogoaren II. Eranskinean dago.

3. Artikulua- Paisaia Interes Bereziko Eremuak

1. Durangaldeko Eremu Funtzionalean Paisaia-Interes Bereziko 41 eremu (PIBE) identifikatu dira, eta 4 multzo handitan multzokatuta geratu dira.

2. Babes-figura desberdinetan sartuta ez dauden PIBEen kasuan, paisaia babesteko, kudeatzeko eta antolatze jarduketak zehaztuko dituzten Paisaiaren Ekintza Planak egitea gomendatzen da. Paisaiaren Ekintza Plan horiek kontuan hartuko dituzte Durangaldeko Eremu Funtzionaleko Paisaiaren Katalogoan jasotako PIBE bakoitzerako ezarritako indikazioak.

3. Durangaldeko eremu funtzionaleko paisaia-interes bereziko eremuak hauek dira:

a) Paisaia naturalak:

- PIBE 1.1. Urkiolako Parke Naturala
- PIBE 1.2. Udalaiz Mendia
- PIBE 1.3. Astogane-Oiz-Zengotitagane

b) Uraren paisaiak

- PIBE 2.1. Ondo kontserbatutako erriberak
 - o PIBE 2.1.A. Ibaizabal ibaiertzak kontserbatuta
 - o PIBE 2.1.B. Arrazola erriberak
 - o PIBE 2.1.C. Orobios erriberak



- o PIBE 2.1.D. Zumelegi erriberak
- PIBE 2.2. Degradatutako erriberak
 - o PIBE 2.2.A. Ibaizabal erribera degradatuak
 - o PIBE 2.2.B. Erleabe erriberak
 - o PIBE 2.2.C. Sarria erriberak
- PIBE 2.3. Urtegiak
 - o PIBE 2.3.A. Aixolako urtegia
- c) Nekazaritza-paisaiak eta haranak
 - PIBE 3.1. Gazeta auzoa
 - PIBE 3.2. Iguria auzoa
 - PIBE 3.3. Minota auzoa
 - PIBE 3.4. Etxano auzoa
 - PIBE 3.5. Bernagoitia auzoa
 - PIBE 3.6. Garai landa-multzoa
 - PIBE 3.7. Andikoa auzoa
 - PIBE 3.8. Gaztelu auzoa
 - PIBE 3.9. Boroa auzoa
 - PIBE 3.10. Orobios auzoa
 - PIBE 3.11. Atxondoko harana
 - PIBE 3.12. Mañariako harana
 - PIBE 3.13. Mendiolako harana
 - PIBE 3.14. Orozketa auzoa
- d) Paisaia antropikoak
 - PIBE 4.1. Kulturalak
 - o PIBE 4.1.A Durangoko hirigune historikoa
 - o PIBE 4.1.B Elorriko hirigune historikoa
 - o PIBE 4.1.C Urkiolako santutegia
 - PIBE 4.2. Produktiboak
 - o PIBE 4.2.A Oizko parke eolikoa
 - o PIBE 4.2.B Mañariako harrobiak
 - o PIBE 4.2.C Atxarteko harrobiak
 - o PIBE 4.2.D Boroako industrialdea
 - o PIBE 4.2.E Zaldibar poligonoa
 - o PIBE 4.2.F Abadiño-Durango-Berriz industrialdea
 - o PIBE 4.2.G Astepe poligonoa
 - o PIBE 4.2.H Durango eta Amorebieta artean hiri-industria jarraitua
 - PIBE 4.3. Hondakinen azpiegiturak



- o PIBE 4.3.A Zaldibar
- o PIBE 4.3.B Abadiño
- PIBE 4.4. Errepide eszenikoak
 - o PIBE 4.4.A Garaiko errepidea
 - o PIBE 4.4.B Mañariatik Urkiolarako errepidea
 - o PIBE 4.4.C Aixolako errepidea

4. PIBEen mugaketa grafikoa Paisaiaren Zehaztapenen II. Eranskinean jasotzen da, eta PIBE bakoitzaren deskribapen xehatua Durangaldeko Eremu Funtzionaleko Paisaiaren Katalogoaren III. Eranskinean dago.

4. Artikulua- Paisaia Kalitatearen Helburuak (PKH)

1. Hauek dira Durangaldeko Eremu Funtzionaleko paisaiaren babesa, kudeaketa eta antolamendua sustatzeko Paisaiaren Kalitatearen Helburuak:

- PKH 1 Paisaiaren faktorea sartzea **bizitegi-garapen berrietan**, mistoetan eta trinkoetan, beharren arabera eta beti zaharkituta geratu diren edo degradatuta edo erabiltzen ez diren lurzoruen gainean geratu diren hiriguneak bete eta birsortu ondoren, ingurunearekin bat datozen eraikuntza-tipologiak bultzatuz, begi-inpaktu txikiarekin eta paisaia-integratioko irizpideen arabera.
- PKH 2 **Industrialdeak eta jarduera ekonomikoak** hiri-paisaian, hiri-inguruan eta landa-eremuan integratzea, eta paisaia-hauskortasun txikiko eremuetan kokatzea, ikus-osagaia desitxuratzen duten elementuak sartzea saihestuz.
- PKH 3 Landa-paisaiaren eta hiriguneen eta hiri-ingurukoaren arteko trantsizio harmonikoa ahalbidetzea **hiriguneetarako sarbideetan**, paisaiari kalitatea eta aniztasuna emango dioten espazio publikoak sortuz.
- PKH 4 **Azpiegiturak**, linealak zein puntualak, paisaian integratzea, ahal denean, edo, bestela, paisaia-intrusio txikieneko espazioak hautatzea.
- PKH 5 **Hondakinak eta betelanak kudeatzeko azpiegituren eta erauzketa-jardueren** integratzea eta/edo paisaia lehengoratzea, ikusmen-inpaktua murriztuz, jatorrizko paisaia lehengoratuz edo, halakorik ezean, balio-bizitzaren amaieran paisaia berriak sortuz.
- PKH 6 **Paisaia-intereseko landa-kokalekuak** babestea, eta **sakabanatutako eraikuntzak** beren ingurunean integratzea, nekazaritzako, kulturako eta nortasuneko paisaiak kontserbatuz eta balioztatuz.



- PKH 7 **Nekazaritzako eta abeltzaintzako** paisaia tradizionala babestea, landazabaleko paisaia osatzen laguntzen duen nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako jarduera sustatuz.
- PKH 8 **Paisaia- eta biologia-aniztasun** handiagoa sustatzea, baso-landaketa monoespezifikoen eremu handiak mugatuz eta baso-masa autoktonoekin eta nekazaritza-paisaiekin tartekatutako landaketa mistoak sartuz.
- PKH 9 **Ibai-inguruneak** kontserbatzea eta/edo lehengoratzea, irizpide ekologikoei eta paisaia-irizpideei jarraiki; irizpide horiek bateragarriak dira herritarrek hiriguneetan, hiri-inguruetan eta landa-inguruneetan duten gozamenarekin.
- PKH 10 **Paisaia naturalak** beren erabilerarekin, eskuragarritasunarekin, gozamenarekin eta pertzepzioarekin bateragarriak diren moduan kontserbatzea, bai eta erreferentziazko ikusizkoak eta identitarioko **funts eszenikoak** ere.
- PKH 11 Durangaldean erreferentziazkoak diren **ondare-elementuak** kontserbatzea, lehengoratzea eta/edo balioan jartzea, paisaia-irizpideei jarraituz eta erabilera berriak ahalbidetuz, bai eta turismo-jarduerari lotutako jarduerak ere.
- PKH 12 **Paisaia-ibilbideen, errepide eszenikoen eta/edo begiratokien** sarea kontserbatzea, hobetzea eta sustatzea, bai eta **ikuspegi-potentzial handia duten jolas-eremuak** ere, paisaia adierazgarrienen pertzepzioari balioa ematen diotenak.
- PKH 13 **Administrazioen eta erantzunkidetasunean eskumena** duten eragile pribatuen arteko lankidetzaren bultzatzea, PKHak garatzeko.
- PKH 14 Paisaiaren kontserbazioan eta hobekuntzan herritarren **zabalkundea, prestakuntza, sentsibilizazioa eta parte-hartzea** bultzatzea.

2. Paisaiaren Kalitatearen Helburu hauek paisaiaren zehaztapenetan garatzen dira, eta, nolatan ere, hirigintza, lurralde eta sektore plangintzaren printzipio insopiratzailak izango dira.

3. Paisaiaren Zehaztapenen III. Eranskinean Durangaldeko Eremu Funtzionalaren Paisaiaren Kalitate Helburuen mugaketa jasotzen da. Mugaketa kartografikoa Durangaldeko Eremu Funtzionalako Paisaiaren Katalogoko Paisaiaren Kalitatearen 12. mapan jasotzen da, eta Paisaiaren Kalitatearen Helburuen zerrenda Paisaiaren Unitate bakoitzarekin lotzen da Durangaldeko Eremu Funtzionalako Paisaiaren Katalogoaren IV. Eranskinean.



5. Artikulua- Bizitegi-garapen berrietan paisaiaren faktorea sartzeari buruzko zehaztapenak (PKH1).

- 1.A. Hirigintza-garapen berriak natura- eta paisaia-balio txikieneko eta ikusmen-hauskortasun txikieneko inguruneetan kokatzea, narriadura-zantzu handienak dituztenei lehentasuna emanez eta hiriguneen hazkunde trinkoa sustatuz.
- 1.B. Erabilerak, eraikinak eta espazio libreak kokatzea beren ingurunean integratzea. Kontuan hartuta, funts eszenikoen eta identitate- eta ondare-espazioen ikusbalioak errespetatuz eta balioetsiz.
- 1.C. Interes handieneko hirigune eta landa-guneen (Elorrio, Garai, Durango, Etxano, Axpe auzoa...) ezaugarriak eta ikusmen-ezaugarriak zaintzea, ikusmen-oztopoak dituzten eta paisaia tradizionalaz, paisaia-mugarriez eta ondare-elementuez gozatzea eragozten duten jarduera itzulezinak saihestuz.
- 1.D. Hiri-garapen berriak planifikatzeko orduan, alternatiben azterketan paisaia-alderdiak txertatzea, ikusmen-inpaktua minimizatzeko eta paisaia-intereseko alderdiak emateko.
- 1.E. Hiri-ehun degradatuen paisaia-kalitatea lortzera bideratutako hiri-birgaitze eta -berrikuntzako prozesuei ekitea, haien irudia hobetzeko eragin zuzenarekin.
- 1.F. Hirigintza-araudi espezifikoa zehaztea, hiri-garapen berriak paisaian integratzeko

6. Artikulua- Industrialdeak eta jarduera ekonomikoak hiri-paisaian eta hiri-inguruko paisaian integratzeari buruzko zehaztapenak (PKH2).

- 2.A. Egungo jarduera ekonomikoetarako lurzoruen okupazioa optimizatzea, lurzoru berriak erabat bete aurretik.
- 2.B. Paisaia-inpaktua ebaluatzea jarduera ekonomikoetarako garapen berrien kokapena hautatzean, haien paisaia-intrusioa ahalik eta txikiena izan dadin.
- 2.C. Errepide-korridoreetan zehar (Amorebieta-Etxanoko Astepe eta San Antonio; Iurretako paper-fabrika; Durangoko, Abadiñoko, Berrizko eta Elorrioko industrialde zaharrak, baita Bilbo-Donostia Trenbide-linean zehar ere) dauden



ikusteko irisgarritasun handieneko industrien eta industrialde zaharren paisaia berroneratzea eta integratzea sustatzea.

- 2.D. Jarduera ekonomikoetarako eremu berrietan, bereziki bide-azpiegituretan kokatutakoetan, lagapen-lurzoruak poligonoen perimetroan kokatzea, haien ikusmen-eragina murtxikatuko duten landare-pantailak ezarri ahal izateko.

7. Artikulua- Hiriguneetarako sarbideetan paisaia-trantsizio hobia ahalbidetzeari buruzko zehaztapenak (PKH3).

- 3.A. Paisaia hobetzeko neurriak sartzeari hiriguneetarako sarbideetan eta hiri-inguruko espazioetan, paisaiari eragiten dioten lekuetan (publizitate-hesiak, seinaleztapena, argiztapena, etab.).
- 3.B. Bilbo-Donostia trenetik ikusten diren paisaia-kalitate eskaseko hiri-atzealdeak hobetzea.
- 3.C. Landa paisaiekin lotutako pasealeku eta espazio publikoen sare bat artikulatzea, hiri-ingurukoari balio erantsia ematen dioten eta guneetarako sarbideak berezi ditzaketen elementu sinbolikoak, historikoak edo naturalistikoak gehituz.
- 3.D. Hirigunearen eta landa-eremuaren arteko trantsizioak bateratuz eta paisaiaren zatiketa arinduz, hiriko berdegune publikoekin lotutako azpiegitura berdea osa dezaketen zuhaitz-berdeguneak gehitzea eta/edo sustatzea.
- 3.E. Hiriguneetarako sarbideen argiztapena diseinatzea, hiriko argiztapenetik bereizita, udalerrietarako sarrera identifikatzeko balio dezan, baina, aldi berean, gaueko paisaia ez distortsionatzeko eta argi-inpaktua ez sustatzeko.
- 3.F. Hiriguneetarako sarbideen ingurunean eta hiri-inguruetan publizitate-seinaleak eta diseinua arautuko dituzten udal-ordenantzak idaztea bultzatzea.



8. Artikulua- Azpiegitura linealak eta puntualak paisaian integratzeari buruzko zehaztapenak (PKH4).

- 4.A. Landaredia (belarkiak eta igokariak) sartzeko proiektuei ekitea, Eredu Funtzionaleko haranaren hondoan zehar komunikazio-azpiegituren trazadurek sortutako lur-erazketak eta lubetak paisaian integratzeko.
- 4.B. Paisaia-inpaktu atzeraezinak dituzten neurri handiko elementu puntual eta lineal gehiago sartzea saihestea, bereziki paisaia-balio handiagoko ikusizko elementuetan, ahal den guztietan azpiegitura horiek trinkotzea eta/edo partekatzea erraztuz.
- 4.C. Paisaia lehengoratzeko proiektuen bidez, korapilo eta komunikazio-bide nagusiak integratzea, betiere posible bada. Halakorik ezean, ezkutatze landare-hesiak ezartzea behatzaile potentzial gehien dauden lekuetatik, batez ere honako azpiegitura hauetan: Amorebieta-Etxanoko eta Elorrioko saihesbideetan, Iurretako lotunean, N-634, N-636, BI-632 eta BI-633 errepideetan, Abadiñoko jarduera ekonomikoen poligonora sartzeko lotune eta ikusmen-intrusio handieneko industrialdeetatik igarotzen diren tarteetan.
- 4.D. Ikusmen handia duten eta paisaiaren pertzepzioa eta gozamena errazten duten funts eszenikoak dituzten bigarren mailako errepide-zatietan abiadura egokitzea eta/edo murriztea (batez ere BI-623 Durango-Otxandio, BI-3341 Garai, BI-3321 Berriz-Elorrio eta BI-2632 Elorrio-Bergara).
- 4.E. Lehentasuna ematea etorkizuneko energia-azpiegiturak kokatzeari (parke eolikoak eta fotoboltaikoak, eraldaketa-azpiestazioak), lehendik dauden beste azpiegitura batzuekin batera, edo, hala badagokio, ikusgarritasun txikiko eta ikusmen-hauskortasuneko eremuetan kontzentratzeari.
- 4.F. Azpiegitura horien ezarpena arautuko duten udal-ordenantzak idaztea, paisaian ahalik eta eragin txikiena izan dezaten.
- 4.G. Komunikazio-bideetan zehar azpiegitura-korridoreak sortzea, ahal den guztietan.
- 4.H. Linea elektriko berriek eta beste azpiegitura lineal edo puntual batzuek kalitate handiagoko funts eszenikoak saihestea.



- 4.I. LAGak eraldatzeko ardatz gisa hartzen diren hiri-jarraituak ekobulebar bihurtzea, paisaia dagokien integrazioarekin.

9. Artikulua- Hondakinak kudeatzeko azpiegiturak eta erauzketa-jarduerak paisaia integratzeari eta/edo lehengoratzeari buruzko zehaztapenak (PKH5).

- 5.A. Harrobi zaharrak paisaia integratzea, ahal denean jatorrizko paisaia lehengoratuz edo, hala badagokio, erabilera jakin batzuekin (aisialdiko jarduerak, jardura artistikoak, ekipamenduak...) bateragarri egin daitezkeen paisaia berriak sortuz.
- 5.B. Zabortegei eta/edo betegarri aktibo eta ez-aktiboetarako eremuetako paisaia lehengoratzea, baita hondakinak kudeatzeko beste azpiegitura batzuk ere (transferentzia-plantak, gaikako bilketa-guneak, etab.), landare-pantailen bidez, sarbideen paisaia-integrazioaren bidez edo jarduerarekin bateragarriak diren beste neurri batzuen bidez.
- 5.C. Ikuspen gutxiagoko eremuetan eta alde zurretik degradatutako eremuetan azpiegitura berriak kokatzeari lehentasuna ematea, jardura amaitu ondoren ingurunean integratzeko duten gaitasuna kontuan hartuta.
- 5.D. Balio-bizitzaren amaieran harrobietan, zabortegetan eta betelanetan egin behar diren lehengoratze-planak eraginkortasunez ezartzea.

10. Artikulua- Landa-asentamenduak zaintzeari eta inguruan sakabanatuta dauden eraikuntzak paisaia integratzeari buruzko zehaztapenak (PKH6).

- 6.A. Intereseko eraikuntza tradizional ugari dituzten auzo eta landa-guneetan kontserbazio-neurriak ezartzeari lehentasuna ematea, baldin eta, aldi berean, ikuserraztasun handia badute eta paisaia-interes handikoak badira.
- 6.B. Nekazaritzako paisaiei lotutako ondare arkitektonikoa distortsionatu dezaketen eraikin berriak saihestea, landa-inguruneari lotutako ekipamenduak edo bestelako azpiegiturak instalatzeko garaian lehendik dauden eraikinak berrerabiltzen edo birgaitzen saiatuz.



- 6.C. Eremu funtzionaleko udalerrietako baserrien tipologia-azterketa egitea, birmoldaketa- eta/edo zaharberritze-ekintzetan kontuan hartzeko irizpideak finkatze aldera.
- 6.D. Landa-kokalekuak eta beren ingurunean integratutako eraikuntzak nekazaritza-sektoreari lotutako jarduera ekonomikoarekin uztartzea, bai eta arkitektura- eta nortasun-balioak zaintzearekin, berreskuratzearekin eta balioan jartzearekin ere.
- 6.E. Nekazaritzako eta abeltzaintzako pabiloi handiak eta industria-berotegiak ikuspen handiko eremuetan kokatzea saihestea, edo paisaia-mugarriak edo funts eszenikoak harrapatzea.
- 6.F. Ahal den neurrian, paisaiari eragiten dioten elementu diskordanteen ezarpena saihestea (landa-paisaiaren naturaltasunarekin zerikusirik ez duten lursailen itxiturak, elementu aurrefabrikatuak, metalezko estalkiak, etab.).
- 6.G. Hirigintza-araudi espezifiko bat definitzea, landa-ondare arkitektonikoa kontserbatzeko eta lehengoratzeko, bai eta lotutako eraikuntza berriak paisaian integratzeko ere.
- 6.H. Mugak eta lurzatiak bereizteko, zuhaixka-landare autoktonoekin (ereinotzak, aladierneak, arintegiak, bonetategiak, etab.) egindako landare-heskai biziak sortzeari lehentasuna ematea, bai paisaian integratzen direlako, bai ekintza positiboa egiten dutelako basa-faunarentzat babesleku eta elikagai gisa.
- 6.I. Baserriak pixkanaka eraikin neorural bihurtzeko aukera mugatzea, bai behintzat kanpoko itxura.

11. Artikulua- Landazabaleko nekazaritzako eta abeltzaintzako paisaia tradizionala zaintzeari buruzko zehaztapenak (PKH7).

- 7.A. Landa-paisaia tradizionalei eusten laguntzea, landa-inguruneke enplegua, ongizatea eta bizi-kalitatea sustatuko dituen nekazaritza-baliabideei balioa ematean oinarritutako jarduera ekonomiko eraginkorrarekin uztartuz.



- 7.B. Nekazaritzako eta basogintzako baliabideen ustiapen paisaia, nekazaritza-turismoa eta aisialdiko jarduerak zaintzearekin uztartzea.
- 7.C. Paisaian garrantzitsuak diren eta berezko nortasuna ematen dioten nekazaritzako paisaiak eta ikusizko mugarriak kontserbatzea, nekazaritza- eta abeltzaintza-teknika ez hain intentsiboen erabilera sustatuz, nekazaritza-paisaia tradizionalak zaintzen laguntzeko (labore-aniztasuna eta nekazaritzako eta basogintzako azalera monoespezifikoak murriztea, abeltzaintza estentsiboa, etab.).
- 7.D. Nekazaritza- eta abeltzaintza-baliabide intentsiboak ustiatzearekin zerikusia duten elementu guztiak (nekazaritza- eta abeltzaintza-pabiloiak eta industriak, negutegi industrialak, etab.) paisaian integratzea, bereziki espezie iraunkorren landare-pantailen bidez, eta gune ikusgarrienen kokatzea saihestea.
- 7.E. Balio handiko nekazaritza-lurzorua okupatzea saihestea, bizitegiarako eta/edo jarduera ekonomikoetarako hiri-lurzoru bihurtzeko.
- 7.F. Bide publikoak, lurzatiaren arteko bereizketa heskaiak, harizko hormak eta nekazaritza eta abeltzaintzako lurzatiaren artean tartekatutako zuhaitz- eta zuhaixka-orbanak kontserbatzea eta/edo zaharberritzea.

12. Artikulua- Paisaia eta biologia aniztasun handiagoa sustatzeko baso-kudeaketari buruzko zehaztapenak (PKH8).

- 8.A. Baso autoktonoko orbanak babestea, baso-landaketa monoespezifiko gisa ordeztzeko arriskuaren aurrean.
- 8.B. Ekoizpeneko baso-ustategien ikusizko itxura hobetzea, baso-soiltzei lehentasuna emango ez dien baso-kudeaketaren bidez, bereziki ikusmen-sentsibiltate handiagoko guneetan edo paisaia-mugarrien ondoan.
- 8.C. Mozketa-metodo progresiboak sustatzea, hala nola bakanketa, zuhaitzien bidezko leheneratzea edo ondoz ondoko bakantzeak, eta paisaia- eta natura-eremu sentikorrenetan eskuzko landaketa sustatzea, mekanizazioaren gainean.
- 8.D. Baso-bilbean hainbat espezie tartekatzea, autoktonoei lehentasuna emanez, bereziki ikuspen handiko lekuetan edo paisaia-mugarrien ondoan.



- 8.E. Higadura-arazo nabarmenak dituzten edo arrisku naturalak aurreikus ditzaketen sektore guztiak (adibidez, urak har ditzakeen inguruak) bertako espezieekin birlandatuta leheneratzea sustatzea.
- 8.F. Baso-orbanen azalera handitzea, bereziki hostozabal autoktonoena, azpiegitura berdeari lotutako konektibitate ekologikoa ahalbidetzen duten espazioen gainetik, zatiketa naturala saihesteko, arreta berezia jarritz mendi publikoetan eta ondare-mendietan.
- 8.G. Baso-kortek edo kortek osatzen duten partzela-egitura bereziari balioa ematea, inguruko espezie bereizgarriak dituen partzela-sare hori kontserbatuz.
- 8.H. Baso-landaketa monoespezifikoa espezie autoktonoekin ordezkatzeko sustatu eta sustatzea.

13. Artikulua- Herritarren gozamenarekin bateragarriak diren ibai- eta zingira-inguruneak kontserbatzeko eta/edo lehengoratzeko buruzko zehaztapenak (PKH9).

- 9.A. Eremu funtzionalean ibaiertzeko espazioen jarraitutasuna eta konektibitatea bermatzea, ibaiertzak lehengoratzuz.
- 9.B. Ondo kontserbatutako ibaiertzak kontserbatzea eta babestea, ibai-paisaiak egituratzeko elementu gisa, eremu funtzionalaren paisaia-aniztasuna bermatzeko, eta berariazko babes-mekanismoak ematea.
- 9.C. Morfologia edo funtzionalitate ekologikoa galdu duten ibaiertzak lehengoratzeko eta/edo birnaturalizatzea bioingeniaritzako tekniken bidez, betiere espezie autoktonoak erabilia, ibaien leheneratze-proiektuen bidez.
- 9.D. Ibaiertzeko landaredi aloktonoko espezieak kentzea.
- 9.E. Hirigintzaren bidez espazio libreak eta lurzorua berreskuratzea, ibai-ibilguen inguruneetan erriberako paisaiak garatzeko hiri-eremuetan, hiri-inguruetan eta landa-eremuetan.



- 9.F. Hiriko ibai-fatxaden balioa sustatzea, eraikitako fronteen eta ibai-ibilguen artean kalitatezko espazioak bermatzeko.
- 9.G. Hiri-tarteetan ibaien presentzia berreskuratzea, ahal den guztietan estaldurak kenduz eta, horrela, uraren paisaia ezkutuak nabarmenduz.
- 9.H. Ibai-ibilguekin lotutako kultura-ondarea (errotak, burdinolak, presak, zubiak, garbitegiak, etab.) lehengoratzeta eta/edo balioan jartzea, haren balio soziala eta historikoa azpimarratuz.
- 9.I. Uren kalitatea mantentzen eta/edo hobetzen dela zaintzea, kontrolik gabeko isurketarik edo alde zuzeneko arazketarik gabeko hondakin-urik gertatzen ez dela kontrolatuz, eta uren kalitatearen helburuak betetzen ez dituzten uren saneamendu- eta arazketa-azpiegiturak hobetzea.
- 9.J. Aixolako urtegiko ur-lamina kudeatzea, hari lotutako erriberako landaredia lehengoratzeta eta aisialdirako inguruak sustatzea, gizartean erabiltzeko.
- 9.K. LPPan jasotako paisaia-intereseko ibai-ibilbidearen proposamena garatzea, Durangaldeko ibai-paisaia egituratzen duten elementuak artikulatzeko, ibaiertzak kontserbatzeko, ibai-espazio degradatuak lehengoratzeko eta ibai-ibilguen (ibilbideak, atsedenlekuak, etab.) erabilera sozialerako.
- 9.L. Herritarrak ibaien kudeaketarekin lotutako erabakiak hartzen inplikatzeta, ingurumen-kontzientzia eta ibai-paisaiak kontserbatzeko erantzukizun partekatua sustatuz, sentsibilizazio-kanpainen bidez eta/edo ibai-inguruneetako jolas-jardueretan parte hartuz, adibidez, zabor-bilketan edo praktika jasangarriari edo landaredi inbaditzailea kentzeari buruzko hezkuntzan.

14. Artikulua- Paisaia naturalak eta funts eszenikoak kontserbatzeari buruzko zehaztapenak (PKH10).

- 10.A. Balio handiko paisaia naturalen kontserbazioa sustatzea, baita eragin eszeniko handieneko mendiena ere, bisualki inpaktu handia duten azpiegituren kokapena saihestuz (parke eolikoak eta bestelako azpiegiturak, linealak zein puntualak).



- 10.B. Paisaia-intrusio handiko elementuak (formagatik, bolumenagatik, materialengatik, koloreengatik, etab.) ikusmen-hauskortasun handiko eremuetan sartzea saihestea. Eraikuntza edo azpiegitura berriak jarri behar badira, paisaian duten eraginaren ebaluazioa egiteko eta paisaian integratzeko neurriak hartzeko eskatuko zaio sustatzaileari.
- 10.C. Ahal den neurrian, natura- eta/edo ikus-garrantzia duten espazioetan paisaia desitxuratzen duten elementuak integratzea, eta, horretarako, paisaia-integrazioko azterlanak egitea.
- 10.D. Hirigintza-plangintzaren bidez babestea inolako babes-figurarik ez duten balio handiko paisaia-intereseko elementu naturalak.
- 10.E. Lurralde- eta hirigintza-plangintzak garatutako babes-irizpideak bete daitezen sustatzea.
- 10.F. Paisaia naturalen eta garrantzi bisualeko paisaien kontserbazioa haien erabilerarekin eta gozamenarekin bateragarri egitea, haien balioak bere horretan mantenduz, haien sarbidea arautuko duten eta aisialdiko jarduerak kudeatuko dituzten planak eta/edo proiektuak garatuz.
- 10.G. Balio handieneko baso-formazio autoktonoak kontserbatzea, baita berezitasun bat duten zuhaitzak ere.
- 10.H. Baso-eremu autoktonoen azalera handitzea, lehentasuna emanaz gaur egun landaketak dituzten ingurune naturaleko ikuspen handiko eremuei.
- 10.I. Degradazio-arazoak dituzten ikusmen-irisgarritasun handiko paisaia naturalak lehengoratzeko eta landareztatzea, bertako landaredia erabiliz.
- 10.J. Landaredi exotiko inbaditzailearen sarrera eta ugaritzea eraginkortasunez kontrolatzea, espezie horien sentsibilizazio- eta ezabatze-kanpainen bidez.
- 10.K. Kortek osatzen duten partzela-egitura bereziari balioa ematea, inguruko espezie bereizgarriak dituen partzela-sare hori kontserbatuz.
- 10.L. Larre menditarrak eta zuhaitz-oin autoktonoak mantentzea bermatuko duen abeltzaintza-kudeaketa bultzatzea.



10.M. Ikus-erreferente eta identitate-erreferente diren multzo geomorfologiko esanguratsuak eta funts eszenikoak zaintzea eta errebalorizatzea, eta, aldi berean, eremu funtzionaleko paisaia konfiguratzea.

10.N. GLIen balioa nabarmentzea eta zabaltzea, eta azpiegiturak egokitzea, paisaiari buruz sartzeko, gozatzeko eta interpretatzeko.

10.O. GLIak lurralde-antolamendu eta -plangintzako tresnetan sartzea.

15. Artikulua- Ondare elementuak kontserbatzeari, zaharberritzeari eta balioa emateari buruzko zehaztapenak (PKH11).

11.A. Paisaiaren aldetik garrantzitsuenak diren ondare-elementuak zabaltzea, kontserbatzea eta balioestea, haiek gozatzea ahalbidetzea eta, haiek aisia- edo jolas-erabilera eta/edo -jarduera berrietarako gaitzea, baldin eta kontserbazio egokiari eragiten ez badiote.

11.B. Ondare-, sinbolo- edo nortasun-balioa duten elementuen identifikazioa eta seinaleetika sustatzea.

11.C. Ingurune hurbilenaren eta sarbideen egokitzapena hobetzea, multzoaren paisaia-balioa indartzeko, balizko erabilera-aldaketak, eraikuntza berriak edo elementuak balio horiek desitxuratzea saihestuz.

11.D. Kultura-interes nabarmeneko mugarriei (elizak, ermitak, dorretxeak, baserriak, eraikin bereziak, etab.) buruzko zuzeneko ikusmenak kontserbatzeko babes-neurriak ezartzea. Batez ere, ikuserraztasun handiena dutenak (jende gehien ibiltzen den errepideetatik, paisaiara iristeko ibilbideetatik, begiratokietatik edo atsedenlekuetatik ikus daitezkeenak).

11.E. Elorrioko eta Durangoko hirigune historikoen babes eta kontserbazio estetikorako neurriei buruzko hirigintza-araudiak betetzen direla sustatzea eta kontrolatzea.



16. Artikulua- Paisaia ibilbideen errepide eszenikoen, begiratokiaren eta/edo ikuspegi-potentzial handiko jolas-eremuen sarea kontserbatzeko, hobetzeko eta sustatzeko buruzko zehaztapenak (PKH12).

- 12.A. Galtzada eta ibilbide historikoak paisaia egituratzeko ardatz gisa sustatzea.
- 12.B. Paisaia-begiratoki eta -ibilbideen sarea indartzea paisaia sinboliko eta bereziki garrantzitsuak diren lekuetan.
- 12.C. Eremuei informazio- eta orientazio-panelak jartzea, ikuspegi zabaloekin eta paisaia- eta ondare-mugarrien presentziarekin, hautemandako paisaia intentsitate eta ezagutza handiagoarekin gozatzeko.
- 12.D. Informazioa eguneratzea eta informazio-panelen euskarriak berritzea Arrazolako bide berdean, narriadura handia baitute.
- 12.E. Paisaia- eta kultura-intereseko hainbat gunetan (begiratokiak, jolas-eremuak, ibilbideak) dauden informazio-panelak berrikustea eta berritzea, beharrezkoa den guztietan.
- 12.F. Paisaia garrantzitsuak dituzten zonetan ondare-elementuetarako sarbidea erraztuko duen seinaleetika bat sustatzea, baliabideak balioa galtzen lagundu gabe, hau da, haren hauskortasuna eta harrera-gaitasuna kontuan hartuta, paisaia baloratuenak kontserbatzeko helburuarekin.
- 12.G. Udalerrizako laguntza-programa bat bideratzea, paisaiara iristeko, bertan egoteko eta gozatzeko, bideak ezagutarazteko, bai eta paisaiak kontserbatzeko sensibilizazio-kanpainak egiteko ere.
- 12.H. Begiratoki eta jolas-eremuetan beharrezkoak diren altzari-elementuak (informazio-euskarriak, mahaiak, bankuak, paperontziak) ingurunearekin mimitizatzea, ingurune hiritarragoetako berezko materialen, diseinuen eta koloreen erabilera mugatuz.



17. Artikulua- Administrazioen arteko lankidetzari buruzko zehaztapenak, bai eta PKHren garapenerako erantzunkidetasunean eskudunak diren eragile pribatuen arteko lankidetzari buruzkoak ere (PKH13).

- 13.A. Udalerrien, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzaren sustatzea, bai eta arlo tematiko edo sektorial guztien artekoa ere, Durangalderako aurreikusitako PKHak lortzeko.
- 13.B. Antzeko arazoak dituzten Durangaldearen ondoko eremu funtzionalen artean paisaia zaindu, kudeatu eta antolatzeak helburuak koordinatzea.
- 13.C. Paisaiaren arloan esku hartzeko mekanismoak sustatzea, hainbat administrazio eta/edo eragile pribatu inplikaturik dituztenak, hala nola, paisaia-integratzeaz arduratzen diren eragileak edo paisaiaren ekintza-planak.
- 13.D. Hainbat administrazio eta/edo eragile pribatu inplikaturik diren paisaia-esku-hartzeetarako ideia-lehiaketak sustatzea.
- 13.E. Administrazioen eta/edo eragile pribatuen artean paisaia-irismeneko hainbat proiektu sustatzea eta garatzea.
- 13.F. Administrazioen eta/edo eragile pribatuen arteko paisaia-akordioak bultzatzea.

18. Artikulua- Paisaia zaintzeko eta hobetzeko dibulgazioari, prestakuntzari, sentsibilizazioari eta herritarren parte-hartzeari buruzko zehaztapenak (PKH14).

- 14.A. Durangaldeko paisaiak komunikatzeko plan bat garatzea, paisaiaren zabalkundea, sentsibilizazioa, pertzepzioa eta zaintza sustatzeko, balio handiko nortasun-ikur gisa.
- 14.B. Durangaldeko paisaiei buruzko erakusketa didaktiko interesgarria sortzea.
- 14.C. Paisaiaren sentsibilizazio-, hezkuntza- eta prestakuntza-programa bat garatzea, nekazariei, abeltzainei, baso-jabeiei eta paisaiaren kudeatzaile gisa zeregin garrantzitsua duten beste kolektibo batzuei zuzenduta.



- 14.D. Durangaldeko paisaien kontserbazioan eta hobekuntzan herritarrak inplikatu dituzten partaidetza-mekanismoak bultzatzea.
- 14.E. Gizarteak paisaia eraikitze eta bizi-kalitatea bereizteko elementu gisa gozatzeko duen zereginari buruz kontzientziatzeko, sentsibilizatzeko eta parte-hartze aktiboa izateko kanpainak diseinatzea.
- 14.F. Ondare historikoa eta horrek paisaiarekin duen harremana zabaltzeko eta interpretatzeko ekintzak diseinatzea, paisaia elementu bizia eta etengabe aldatzen ari dela ideia transmititzeko, ingurunearen gainean garatu diren erabilera historikoek eta egungo biztanleen lurraldea okupatzeko, bizitzeko eta sentitzeko moduak markatuta.
- 14.G. Zerbitzurako ikaskuntzan (ZI) oinarritutako paisaiaren irakaskuntza-modulu bat diseinatzea, paisaian esku hartzeko benetako proiektu bati lotuta.
- 14.H. Paisaia irakasteko modulu bat diseinatzea, Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (POI) metodologiarekin, paisaian esku hartzeko proposamen bat egiteko.
- 14.I. Paisaiaren irakaskuntza-modulu bat diseinatzea, benetako paisaia-arazo bat konpontzeari lotuta, arazoetan oinarritutako ikaskuntza-metodologia erabilia.
- 14.J. Eskolako Agenda 21eko jardueretan paisaia bikain eta egunerokoak irakastea sustatzea.
- 14.K. Euskara kontuan hartzea lurraldeko hizkuntza-paisaian, toponimia errespetatuz paraje eta elementuen izendapenean.

19. Artikulua- Paisaiaren zehaztapenak aplikatzea eta garatzea.

Paisaiari buruzko zehaztapenak honako dokumentu hauetan kontuan hartuko dira:

- a) Lurralde eta hirigintza-plangintzako tresnak, bai eta dagozkien ingurumen-ebaluazio estrategikoko prozesuetan ere (arrunta eta sinplifikatua).
- b) Ingurumen-inpaktuaren azterketak (arrunta eta sinplifikatua).
- c) Paisaia-integrazioko azterlanak.
- d) Paisaiaren ekintza-planak